

NEGUKO BIDEZAINZAKO PROGRAMA OPERATIBOA

2025 – 2026





AURKIBIDEA

1.- NEGUKO BIDEZAINZA: EGOERAK AKTIBATZEA

- 1.1. INDARRALDIA
- 1.2. METODOLOGIA
- 1.3. DEFINIZIOAK
 - 1.3.1 PREBENTZIO ALDIA
 - 1.3.2 LARRIALDI ALDIA

2. NEGUKO BIDEZAINZA: ESKU HARTZEA

- 2.1 ESKU HARTZE MOTAK
 - A) PREBENTZIO ALDIA
 - A.1. Abian jartzea
 - A.2. Baliabide materialak eta giza baliabideak prebentzio aldian
 - A.2.1. *Baliabide materialak*
 - A.2.2. *Giza baliabideak*
 - B) LARRIALDI ALDIA
 - B.1. Abian jartzea
 - B.2. Baliabide materialak eta giza baliabideak larrialdi aldian
 - B.2.1. *Baliabide materialak*
 - B.2.2. *Giza baliabideak*
- 2.2 LANGILE KUALIFIKATUAK.
- 2.3 ZAINZA TALDEA.
 - 2.3.1 DEFINIZIOA.
 - 2.3.2 TXANDEN ANTOLAKETA.
 - 2.3.3 ZAINZA TALDEAREN JARDUN EREMUAK.
 - 2.3.4 ZAINZA TALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA LANAK.
 - 2.3.5 ZAINZA TALDEAREN JUSTIFIKAZIOA.
 - 2.3.6. ZAINZA TALDEAREN OSAERA.
 - Oinarrizko zaintza taldea
 - Ohiko zaintza taldea
 - Zaintza talde indartua

3. KOORDINAZIOA

- 3.1. ZERBITZUEN, BALIABIDEEN ETA LANGILEEN KOORDINAZIOA
- 3.2. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA
 - Probintzia arteko erakundeen arteko koordinazioa

4. LEHENTASUNAK

- 4.1. I LEHENTASUNEN ERREPIDE TARTEAK
- 4.2. II LEHENTASUNEN ERREPIDE TARTEAK
- 4.3. III LEHENTASUNEN ERREPIDE TARTEAK

5.- LANGILEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK TXANDAKA BANATUTA



- I. ERANSKINA: ORGANIGRAMA FUNTZIONALAREN ESKEMA
- II. ERANSKINA: LANGILEEN ZERRENDA
- III. ERANSKINA: EGITEKOAK ETA EGINBEHARRAK
- IV. ERANSKINA: MAKINEN ZERRENDA
- V. ERANSKINA: NEGUKO BIDEZAINZA: ZAINZA TALDEEN ZERBITZUA
- VI. ERANSKINA: LANGILEEN HARREMANETARAKO TELEFONOAK
- VII. ERANSKINA: LANTALDE BANAKETA PREBENTZIO ALDIAN
- VIII. ERANSKINA: LANTALDE BANAKETA LARRIALDI ALDIAN
- IX. ERANSKINA: LEHENTASUNEN MAPA
- X. ERANSKINA: MENDATEETAKO ARGI PANELAK
- XI. ERANSKINA: ERREPIDEETAKO ESTAZIO METEOROLOGIKOAK
- XII. ERANSKINA: URGARRIEN BILTEGIAK
- XIII. ERANSKINA: ERREPIDEEN FORU SAREKO GUNE GARAIK
- XIV. ERANSKINA: SIGLEN GLOSARIOA



1.- NEGUKO BIDEZAINZA: EGOERAK AKTIBATZEA

1.1. INDARRALDIA

2025 – 2026 denboraldiko Neguko Bidezaintza Programa Operatiboa abian jarriko da eguraldi txarrak izotza eta elurra dakartzanean Arabako Lurralde Historikoko errepideen sareko tokiren batean.

Programa 2025eko azaroaren 15ean jarriko da indarrean eta 2026ko apirilaren 15ean amaituko da. Dena den, eta salbuespenez, epe horretatik kanpo ere indarrean egongo da, elurra edo izotza egiten badu, harik eta beste programa operatibo bat onetsi arte.

1.2. METODOLOGIA

2025 – 2026 denboraldiko Neguko Bidezaintzako Programa Operatiboa (NBPO) eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren Neguko Bidezaintza Plana osagarriak dira, eta koordinatu egiten dira.

Ondorioz, Neguko Bidezaintza Planean aritzen diren erakundeetan honako hauek ezartzen dira solaskide izateko: Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza, Larrialdiak Koordinatzeko SOS-Deiak Zentroaren bitartez; Euskal Autonomia Erkidegoko Koordinazio Organoa, eta lurraldeetako koordinazioko organoak edo mahai teknikoak.

Solaskidea izateaz gainera, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak eguraldi iragarpenen inguruko informazioa emango du 24 ordu lehenago gutxienez. Datuak bi modutara jaso daitezke: faxez (945 18 20 97) eta Errepideak Kontrolatzeko Zentroaren (EKZ) helbide elektronikoa (ccc@araba.eus).

Eguraldi iragarpen batek neguko bidezaintza (prebentiboa zein larrialdikoa) abiarazteko arrazoirik erakusten badu, EKZko komunikazio arduradunak “komunikazioko prozedura operatiboa” (KPO) abiaraziko du eta abisua emango dio telefonoz neguko bidezaintzako arduradunari (NBA) edo KPOn ezartzen diren arduradunetako bati, laneko orduetan zein lanalditik kanpo.

Horrez gainera, EKZk beste iturri batzuetatik ere jaso ahal izango du informazio meteorologikoa, **Euskal Meteorologia Agentziaz (Euskalmet) eta Estatuko Meteorologia Agentziaz (Aemet)**, esaterako. Jasotzen duen informazioaren arabera, programa operatibo honetan azaltzen diren prebentzio aldia edo larrialdi aldia abiarazi edo etengo dira.

1.3. DEFINIZIOAK

Bi esku hartze mota orokor ezarri dira:

1.3.1 PREBENTZIO ALDIA

Prebentzio aldia honela definitzen da: errepide sareko zirkulazioa egokitzeke egin beharreko jardueren multzoa, sareko zeinahi puntutan izoztea iragartzen denean edo 700-1.000 metro bitartean elurtea izango dela aurreikusten denean, intentsitatea edo elurraren lodiera edozein dela ere.

1.3.2 LARRIALDI ALDIA



Larrialdia honela definitzen da: errepide sarean egin beharreko jardueren multzoa, 700 metrotik behera elurra botako duela iragartzen denean, aurreikusten den elurraren lodiera edozein dela ere.



2. NEGUKO BIDEZAINZA: ESKU HARTZEA

2.1 ESKU HARTZE MOTAK

A) PREBENTZIO ALDIA

A.1. Abian jartzea

Prebentzio aldia abian jartzen da iragartzen denean sareko zeinahi puntutan izoztea izango dela edo 700-1.000 metro bitartean elurtea botako duela.

Honelakoetan NBAk bakarrik (batzuetan, hierarkian gorago dagoen batek aginduta) abiarazi edo eten dezake eguraldiaren edo beste zerbaiten ondoriozko prebentzio aldia.

A.2. Baliabide materialak eta giza baliabideak prebentzio aldian

A.2.1 Udal plangintza Baliabide materialak

Ibilgailu hauek erabiliko dira, kasuan kasuko beharizanen arabera:

- AFarenak
- zaintza kontratuen enpresa adjudikaziodunak
- AFarekin neguko bidezaintzan aritzeko hitzarmena sinatuta duten Arabako kuadrillek kontratatutako enpresenak

Baliabideen zerrenda IV. eranskinean dago.

A.2.2. Giza baliabideak

Larrialdietan II. eranskineko (Langileen zerrenda) langileak eta EKZkoak arituko dira, gertaeraren arabera.

AFako beharrezko taldeetako gidariak eta dagozkien ordezkioak lehen deirako VI. eranskinean agertzen diren txanden hurrenkeraren arabera deituko dira, eta hurrengo esku hartzerako, lehenengoan esku hartu ez duen lehen taldea deituko da.

Laguntzaileak hurrenkera alfabetikoan deituko dira, II. eranskineko zerrendaren arabera.

Errepideen zaintza integralerako kontratuaren enpresa adjudikaziodunetako langileek eta indarreko hitzarmena duten lurraldeko kuadrilletako langileek ere esku hartuko dute.

Zortzi orduko lan txandak egingo dira; lehen txanda eguraldi iragarpenaren arabera beharrezko denean hasiko da.

Prebentzio aldian, lan txandak iragarpen meteorologikoaren arabera lanak amaitutzat jo daitezkeenean amaituko dira; langileek ez dute lanean jarraitu beharko txanda osoa amaitu arte.

Ahaleginak egingo dira ohiko lanalditik kanpoko lan txandak gutxienez lau ordukoak izateko. Eguraldi inguruabarrak direla eta beste lan txanda bat sartzea aurreikusita ez badago, azken txanda lau ordu egin arte luza daiteke.



Lanaldi luzeegiak izan ez daitezzen, ahal dela, txandetarako izendatzen diren langileek atsedean hartu beharko dute lanean hasi aurreko zazpi orduetan.

Aparteko kasuetan, lan txandak ezin badira eratu behar besteko atsedena (zazpi ordu) ziurtatzeko moduan, langileak nahitaez egon beharko dira atsedenean lanari ekin aurreko bi orduetan.

B) LARRIALDI ALDIA

B.1. Abian jartzea

Larrialdi aldia abian jartzen da 1.3.2 apartatuan azaltzen dena gertatzen denean, hau da, 700 metrotik behera elurra botako duela iragartzen denean modu sinesgarrian, aurreikusten den elurraren lodiera edozein dela ere.

Larrialdi aldia NBAk abiarazi edo eten dezake (batzuetan, hierarkian gorago dagoen batek aginduko dio).

B.2. Baliabide materialak eta giza baliabideak larrialdi aldian

B.2.1. Baliabide materialak

Baliabide material guztiak erabili ahal izango dira:

- AFarenak
- errepideen zaintza integralerako kontratuaren enpresa adjudikaziodunenak
- AFarekin neguko bidezaintzan aritzeko hitzarmena sinatuta duten Arabako kuadrillek kontratatutako enpresenak.
- AFAk kontratatutako beste enpresa batzuenak, elurra kentzeko makinariak edukiz gero

Baliabideen zerrenda IV. eranskinean dago.

B.2.2. Giza baliabideak

Larrialdietan II. eranskineko (Langileen zerrenda) langileak eta EKZkoak arituko dira, gertaeraren arabera.

Errepideen zaintza integralerako kontratuaren enpresa adjudikaziodunetako langileak eta indarreko hitzarmena duten lurraldeko kuadrilletako langileak ere esku hartuko dute.

Makineria erabilgarriarekin lan egiteko behar diren gidarien eta laguntzaileen postuak behar bezala betetzeko, errepideen zaintza integralerako enpresa adjudikaziodunengana joko da.

Hala eta guztiz ere gidari postuak bete ezin izan badira, kanpoko langileak kontratatu ahal izango dira.

Zortzi orduko lan txandak egingo dira; lehen txanda eguraldi iragarpenaren arabera beharrezko denean hasiko da.

Larrialdian, lan txandak iragarpen meteorologikoaren arabera lanak amaitutzat jo daitezkeenean amaituko dira; langileak ez dute lanean jarraitu beharko txanda osoa amaitu arte.



Ahaleginak egingo dira ohiko lanalditik kanpoko lan txandak gutxienez lau ordukoak izateko. Eguraldi inguruabarrak direla eta beste lan txanda bat sartzea aurreikusita ez badago, azken txanda lau ordu egin arte luza daiteke.

Lanaldi luzeegiak izan ez daitezten, ahal dela, txandetarako izendatzen diren langileek atsedean hartu beharko dute lanean hasi aurreko zazpi orduetan.

Aparteko kasuetan, lan txandak ezin badira eratu behar besteko atsedena (zazpi ordu) ziurtatzeko moduan, langileak nahitaez egon beharko dira atsedenean lanari ekin aurreko bi orduetan.

2.2 LANGILE KUALIFIKATUAK.

Bidezaintza Ataleko burua da neguko bidezaintzarako programa operatiboari atxikitako langileen zuzeneko arduraduna; gainera, berak antolatuko du neguko bidezaintza.

Haren aginduetan koordinatzaile nagusiak arituko dira (bideen koordinazioa): Bidezaintza Ataleko teknikariak eta hiru kontrolatzaile. Koordinatzaile horiek kanpaina bakoitzerako izendatuko dira, I. eranskineko organigramaren arabera.

NBAk NBPOri atxikitako langile kalifikatuak eta makinak erabil ditzake neguko bidezaintzan aritzeko, laneko orduetan zein lanalditik kanpo, honako zerbitzu hauetakoak, hain zuzen:

- Bide Azpiegituren Zuzendaritza:
 - Errepide Zerbitzua.
- Natura Ingurunearen Zuzendaritza:
 - Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua.
- Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza:
 - Laborategi Orokorreko Zerbitzua.
 - Ibilgailuen Zerbitzua.

Programa operatiboko kide guztiek nahitaez jardun behar dute langile kalifikatuen berezko lanetan neguko bidezaintza ziurtatzeko.

II. eranskinean neguko bidezaintzan lanaldiaren barruan zein kanpoan arituko diren pertsonak agertzen dira.

Gainera, NBAk errepideak zaintzeko kontratuei atxikitako langileak erabili ahal izango ditu, bai eta Aldundiak taldeak osatzeko kontratatatu beharreko langileak ere.

2.3. ZAINZA TALDEA.

2.3.1 DEFINIZIOA.

Lanalditik kanpo bidezaintzan lan egiteko prest dauden langile kualifikatuak, A) eta B) ataletan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen ez direnean, hau da, ez denean ez prebentzio aldia, ez larrialdia.

2.3.2 TXANDEN ANTOLAKETA.



Aldundiaren langileen txandak (IV. eranskina) lanalditik kanpoko lanak bermatzeko ezarri dira, 24 orduz zein jaiegunetan, Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak onartutako zaintza taldeen antolamenduarekin bat etorriz (Neguko Bidezaintzarako Taldeen Plana).

2.3.3 ZAINZA TALDEAREN JARDUN EREMUA.

Hau da zaintza taldeen egitekoa: neguan (2025eko azaroaren 15etik 2026ko apirilaren 15era arte) izotza edo elurra egiten duenean, edo aparteko kasuetan, NBaren ustez beharrezkoa denean, foru sareko errepideetako trafikoaren segurtasuna bermatzeko behar diren lanak egitea.

Zeregin horiek berehalako esku hartzeak dira, eta zaintza taldearen ahalmenera mugatuta daude.

Lanak egiteko aintzat hartzen dira programa operatibo honetako 4. puntuan azaltzen diren lehentasunak.

2.3.4 ZAINZA TALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA LANAK.

Zerbitzu honi atxikita egongo dira errepideen zaintza integralerako kontratua duten enpresen langileak eta AFaren langileak (II. eranskina); lan egiteko txandak IV. eranskinean zehazten dira.

Zaintza talde baterako izendatutako AFaren langile batek ezin badu zerbitzuan jardun arrazoi pertsonalen batengatik, ordezkoa aurkitu beharko du (bere erantzukizunpean) eta planaren arduradunari esan beharko dio nor den taldearen jarduna hasi baino lehen.

Ahal izanez gero, zaintza taldeetako kideei 24 ordu lehenago jakinaraziko zaie lan txanda dutela.

Zaintza taldeen lan txandak zortzi ordukoak izango dira; ahal dela, talde bakoitzak zortzi txanda (64 ordu) egingo ditu gehienez.

Eguraldia dela eta zaintza taldeko kideak ordeztu behar badira, hots, lan txanda gehiago behar badira, Bidezaintza Planari atxikitako gainerako langileei nahikoa denbora lehenago pasatuko zaie abisua, eta, ahal dela, ordu egokietan (gauerdia baino lehen eta goizeko zazpiak baino geroago). Lan egiteko deiak IV. eranskineko hurrenkeran egingo dira, lanean jardun duen taldearen hurrengotik hasita.

Zerbitzua optimizatzeko, zaintza taldeen txandez gainera borondatezko langileen zerrendak prestatu ahal izango dira (II. eranskina).

Langile horiek nahitaez jardun beharko dute bidezaintzan, eta horren trukean konpentsazioa jasoko dute (dirua edo orduak).

Akordio honen edukiarekin bat etorriz, zaintza taldeen esku dauden baliabide materialak eta arrisku meteorologikoa ikusita, NBAk zaintza taldea aktibatuko du.

Zaintza taldea aktibatuz gero, koordinatzaile nagusiak eman behar die abisua taldekideei. Gainera, taldea antolatu eta kontrolatu behar du, NBaren ikuskapenarekin.

NBAk antolatzen ditu lanaldiaz kanpoko zaintza taldeak (gidaria eta laguntzailea edo gidaria bakarrik eta bidezaintza lanetarako beharrezkotzat jotzen diren gainerako langileak); beraz, talde horiek lanaldia amaitzen denetik hurrengo lanaldia hasi arte aritzen dira.

Lehen azaldu den bezala, zaintza taldeko kideak lanerako "prest" egon behar dira berek esaten duten tokian, EKZk telefonoz aurkitzeko moduan (ahal dela, aldean eduki behar dute Arabako Foru Aldundiak talderako izendatzearekin batera emandako sakelako telefonoa); deia jasotakoan 40 minutu edukiko dituzte EKZra heltzeko.



Alarma joz gero, zaintza taldeak lanean hasiko dira koordinatzaile nagusiaren kontrolpean, NBAk ontzat eman ondoren. Zuzenean komunikaturik egongo dira beti igorgailu-hargailu baten bidez, aginduak eman eta informazioa trukatzeko. Bideetan egin beharreko lanen arabera gerta liteke palakari bat eta mekanikari batzuk behar izatea Ibilgailuen Zerbitzuan taldeentzako gatza zamatzeko eta behar diren konponketak egiteko.

Zaintza taldea lanean ari denean, NBAk beharrezkotzat joz gero, koordinatzaile nagusiak edo tokian tokiko koordinatzaileek errepede sareko gorabeheraz bidaltzen duten informazioa jaso, aztertu eta transmitituko du EKZk.

Alarma sortzen denetik zaintza taldeak 40 minutu edukiko ditu bertaratu eta lanean hasteko. Ordutik aurrera taldea ez da zaintzan egongo. Izan ere, lanean hasteak berekin dakar "aparteko orduak" zenbatzea, AFaren langileen jardunaz indarrean dagoenaren arabera.

2.3.5 ZAINZA TALDEAREN JUSTIFIKAZIOA.

Zaintza taldean egon ondoko lehen egun baldiodunean taldekideen zerrenda bidaliko da Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailera, datu hauek xehatuta: zaintzaren iraupena; zaintza eten bada zerbitzuan aritzeko, zer ordutan joan den lanera eta zer ordutan itzuli den. Hori egiteko neguko bidezaintzarako baliabideak kudeatzeko programa (Nieves) hartuko da aintzat.

Zaintzan taldean egoteagatik jasotzen den diru konpentsazioa Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak finkatzen du. Zaintzan egonik zerbitzuan lan egin behar izanez gero, lanean egiten diren orduak aparteko ordutzat hartuko dira, eta ordura arte igarotako moduluak (osorik zein zati bat) zaintzako modura ordainduko dira.

Aparteko zerbitzua egin ondoren berriz ere zaintzara itzuli behar bada, zerbitzua eragin duena desagertu arren arriskuak bere horretan segitzen duelako, zaintza taldekoei hasten den modulua ordainduko zaie.

2.3.6 ZAINZA TALDEAREN OSAERA.

Zaintza taldea hiru motatakoa izan daiteke izotz edo elur iragarpenaren arabera:

- Oinarrizko zaintza taldea
- Ohiko zaintza taldea
- Zaintza talde indartua

Oinarrizko zaintza taldea

Mota honetako zaintza taldea eratuko da iragartzen denean elurra edo izotza bota lezakeela II edo III lehentasuneko errepede tarteetan.

Hauek arituko dira:

- Koordinatzaile nagusi bat.
- Tokiko koordinatzaile bat.
- Errepideen zaintza integralerako kontratua duten enpresen behar beste langile, kamioietan.

Ohiko zaintza taldea



Mota honetako zaintza taldea eratuko da iragartzen denean elur edo izotz apurra egin lezakeela I lehentasuneko errepede tartetean.

Hauek arituko dira:

- Koordinatzaile nagusi bat.
- Tokiko koordinatzaile bat.
- Bi kamioi, behar diren AFaren langileekin.
- Errepideen zaintza integralerako kontratua duten enpresen behar beste langile, kamioietan.

Zaintza talde indartua

Mota honetako zaintza taldea eratuko da iragartzen denean elur edo izotz gehiago botako duela, eta gehiago iraungo duela, 700 metrotik beherako I lehentasuneko errepede tartetean.

Hauek arituko dira:

- Koordinatzaile nagusi bat.
- Tokiko koordinatzaile bat.
- Bi kamioitik gora, behar diren AFaren langileekin.
- Errepideen zaintza integralerako kontratua duten enpresen behar beste langile, kamioietan.
- Ibilgailuen Zerbitzuko bi mekanikari, NBAk beharrezkotzat jotzen badu.
- EKZko operadore bat, NBAk beharrezkotzat jotzen badu.

NBAk beharrezkotzat joz gero, zaintza taldeen osaera beharrezkanen arabera aldatu ahal izango da, inguruabarrei aurre egiteko behar diren langileak gehitzeko.



3. KOORDINAZIOA

3.1. ZERBITZUEN, BALIABIDEEN ETA LANGILEEN KOORDINAZIOA

Bidezaintza Atalak ahalmena dauka Neguko Bidezaintza Programa Operatiboa gauzatzeko zuzeneko arduradunen bitartez. Horretarako zuzenean eta modu automatikoan erabil ditzake programa honi atxikita dauden Aldundiko zuzendaritzetako ekipoak eta langileak (II. eranskina eta VI. eranskina), bai eta errepideen zaintza integralerako kontratua duten enpresen eta Arabako kuadrillek kontratatutako enpresen langileak eta baliabide materialak ere.

Sistema zein konplexua den ikusirik eta kontuan edukita era askotako lanak egin behar direla ekipoak eta langileak prest edukitzeko (nabeak, instalazioak, makinak eta urgarriak aztertu; langileak kudeatu; denak antolatu, eta abar) eta taldeek berek ere egiteko ugari daukatela (tratamendu prebentiboak, konponketak, elurra kendu, ekipoak artatu eta garbitu, eta abar), erabat beharrezkoa da neguko bidezaintzako langile eta ekipo guztiak Programa Operatiboaren zuzeneko arduradunen mendean egotea. Gainera, aldezturik ezin da jakin zenbat ordu eman beharko dituzten bidezaintzan neguko kanpainan (azarotik apirilera, biak barne) edo aparteko kasuetan, NBAk beharrekotzat jotzen duenean.

3.2. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

2025-2026 Neguko Bidezaintza Planaren arabera (edo Eusko Jaurlaritzak onetsi duen azkena), erakundeen arteko komunikazioa honako hauek bideratuko dute: lurraldeetako koordinazioko organoek edo mahai teknikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko Koordinazio Organoak eta Bideen Koordinaziorako Postuek.

"Larrialdietan (eta, ahal dela, prebentzio aldietan ere bai) EKZk <http://www.araba.eus/Carreteras/Transportes/default.asp>; web orria aktibatuko du errepideen egoeraren berri emateko; orria 15 minututik behin eguneratuko da. " SOS-Deiak-ek orri hori aztertu ahal izango du errepideak nola dauden jakiteko, eta aldaketaren bat gertatu dela ikusten badu, telefonoz (945 21 72 72) jakinarazi ahalko dio EKZri.

Probintzia arteko erakundeen arteko koordinazioa

Izotza edo elurra egiten duenean, Bide Azpiegituren Zuzendaritzak behar den guztia egingo du errepideak garbitzeko lanetan parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren antolatzeke:

- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernua
- Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioa Burgosko eta Errioxako errepideen mugapeak
- Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa
- Errioxako Autonomia Erkidegoa
- AP-1 autobidea (Araba)



- AP-68 Vasco-Aragonesa autobidea

Orain arte akordio hauek lortu dira:

Arabako lurraldeko errepide guztietan AFAk dauka neguko bidezaintzaren ardura, ondoren zehaztutako tartetean izan ezik:

- Bizkaiko Foru Aldundiak dauka neguko bidezaintzaren ardura N-240 errepidean, probintziaren mugatik Legutioraino. AFAk A-623 garbituko du Otxandioko saihebiderraino (BI-623).
- Gipuzkoako Foru Aldundiak dauka A-627 errepideko neguko bidezaintzaren ardura, probintziaren mugatik Urbinaraino.

Dauden baliabide publiko eta pribatuak ahalik ondoen erabiltzeko, lankidetzaren bitartez administrazio publiko guztiek parte hartzea sustatuko da, batez ere tokikoek, bai eta gainerako gizarte eragileek ere.

Elurra kentzeko lankidetzaren hitzarmen hauek sinatu dira:

- AFAREN eta Aiarako Kuadrillaren arteko hitzarmena.
- AFAREN eta Añanako Kuadrillaren arteko hitzarmena.
- AFAREN eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren arteko hitzarmena.
- AFAREN eta Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren arteko hitzarmena.
- AFAREN eta Arabako Lautadako Kuadrillaren arteko hitzarmena.
- AFAREN eta Gorbeialdeko Kuadrillaren arteko hitzarmena.
- AFAREN eta Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren (Aiara) arteko hitzarmena.
- AFAREN eta Autopista Vasco Aragonesa enpresa emakidadunaren arteko lankidetzaren hitzarmena neguko bidezaintzarako tratamendu prebentiboak egiteko N-622 errepidean (Gasteiz-Altube tartea).



4. LEHENTASUNAK

4.1. I LEHENTASUNEN ERREPIDE TARTEAK:

Ahaleginak egingo dira errepide hauetan gau eta egun, 24 orduz, zirkulazioa bermatzeko, baita igande eta jaiegunetan ere.

Hauek dira I lehentasuneko errepideak:

AP-1	Burgosko probintzia muga-A-1 errepidearekiko lotunea (bi galtzadak)	14,00 km
AP-1 (*)	Etxabbarri-Gipuzkoako muga (bi galtzadak)	28,46 km
	Lotuneak eta ordainlekuak	
AP-68 (**)	Bilbo-Zaragoza (bi galtzadak)	110,42 km
	Lotuneak eta ordainlekuak	
A1.	Madril-Irun (bi galtzadak)	126,58 km
	Lotuneak I lehentasuneko bideekin	
N-102	Gasteiztik Arinizen eta A-1 errepidearen lotuneraino (bi galtzadak)	9,94 km
N-104	Gasteiztik A-1era (Venta del Patio)	9,47 km
N-124	A-1 errepidetik (Puente Nuevo) lurralde historikoko mugaraino (Errioxa)	15,17 km
N-240	Gasteiz-Legutio (bi galtzadak)	28,93 km
N-622	Gasteiztik Bilbora AP-68 autobidetik (bi galtzadak)	38,70 km
	Lotuneak I lehentasuneko bideekin	
N-624	Forondako aireporturako sarbidea (bi galtzadak)	3,75 km
A.1.	Elorriagatik Nafarroako mugaraino	38,49 km
A-2120	N-124 Zambrantatik lurralde historikoko mugaraino (Miranda de Ebro)	0,99 km
A-2134	A-I (Eskalmendi)-N-104 (Arkauti)	3,90 km
I LEHENTASUNEN KILOMETROAK, GUZTIRA		428,80 km

(*) Arabako Bideak SAK kudeatutako autobidea

(**) Emakida araubideko autobidea: Abertis.

4.2. II LEHENTASUNEN ERREPIDE TARTEAK

II lehentasuneko errepideetan ez da bermatzen zerbitzu etengabea. Ahalegina egingo da irekita egon daitezen 08:00etatik 18:00etara, baita igande eta jaiegunetan ere, I lehentasuna ondo beteta badago.

Hauek dira II lehentasuneko errepideak:

A-124	Briñas - Logroño	27,93 km
-------	------------------	----------



A-623	Legutio - Otxandio	6,04 km
A-624	Santuaren gaina–Urkillo–Amurrio–Artziniega	34,71 km
A-625	Areta–Amurrio–lurralde historikoko mugaraino (Urduña)	23,15 km
A-627	N-240 errepidearen (Urbinaiko lotunea) eta Gipuzkoako mugaren artean	5,40 km
A-2124	Gardelegitik eta Gasteizko mendatearen gaineratik lurralde historikoko mugaraino (Trebilñu)	4,51 km
A-2128	Agurainetik Santikurutze Kanpezura	31,06 km
A-2522	A-624 errepidetik (Urkillo) lurralde historikoko mugaraino (Orozko)	6,26 km

II LEHENTASUNeko KILOMETROAK, GUZTIRA

139,06 km

4.3. III LEHENTASUNeko ERREPIDE TARTEAK:

Ahalegina egingo da irekita egon daitezzen 08:00etatik 18:00etara, baita igande eta jaiegunetan ere, baldin eta hori egitea bateragarria bada aurreko lehentasunarekin (II lehentasuna).

Lehentasun honetakoak dira I eta II lehentasunekoak ez diren foru sareko gainerako errepideak.

Lehentasun honetako kilometroen laburpena:

Oinarrizko sarea	10,70 km
Eskualdeko sarea	149,67 km
Tokiko sarea	530,62 km
Auzo sarea	372,62 km

III LEHENTASUNeko KILOMETROAK, GUZTIRA

1.063,01 km

Inoiz ez dira elurra garbitzeko jardueretatik kanpo geldituko toki erakundeek garbitu beharreko errepideak, hitzarmenetan sartuta baitaude. Horrela, Arabako foru sareko errepide guztiak daude zaintzapean.



5.- LANGILEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK TXANDAKA BANATUTA

Larrialdi aldiari, VI. eranskineko lehen txandakoak hasiko dira lanean (baliabide materialak zein langileak). Hurrengo larrialdi aldiari, lehenengo esku hartzean lanak amaitu zituen txandaren ondorengo txandatik hasiko da lana.

Prebentzio aldietan, berriz, iragartzen denean 700-1.000 metroan elurra botako duela edo izotza egingo duela nonahi, talde egokiak hautatuko dira, lanak non egin behar diren kontuan hartuta, batez ere mendateetan jardun behar izanez gero. Lantaldeak:

AFA	MENDEBALDEA	EKIALDEA	KUADRILLAK
Copo 38	170	280	Ay-6
Copo 37	171	281	K-1
Copo 36	172	282	
Copo 35	173	283	
Copo 25	174	284	
Copo 24	175	285	
Mol 9	176	286	
Urak	irud.	287	
Mol 10	178	288	
Zisterna	154	289	

Beraz, prebentzio aldietan talde horietatik behar direnei deituko zaie, eta gero, behar izanez gero, gehiago ere jarriko dira lanean.

Lehenengoz prebentzio lanak egin behar direnean, VII. eranskineko lehen txanda abiaraziko da, eta ondoren hurrenkeraren arabera deituko zaie prebentzio aldia amaitu arte.

Prebentzio aldiko esku hartze berrietarako, lehenik eta behin, VII. ERANSKINEAN agertzen diren eta aurretik esku hartu ez duten taldeei deituko zaie.


Horrez gainera, prebentzio aldietan langile hauek ere aktibatuko dira:

- Koordinatzaile nagusia
- Tokiko koordinatzaileak (behar beste, eguraldiak sortzen dituen beharren arabera)
- Bidezaintzako komunikazioen koordinatzailea
- EKZ-EEAZko operadore bat, NBAk beharrezkotzat jotzen badu.

Errepideen sarean prebentzio aldietan zein larrialdietan erabiltzen diren baliabide materialak eta langileak lehenengo taldearen arabera banatuko dira, aurreko urteetan eta egunetan antzeko inguruabarretan gertatu dena kontuan edukiz.



I. ERANSKINA: ORGANIGRAMA FUNTZIONALAREN ESKEMA





II. ERANSKINA: LANGILEEN ZERRENDA

LANGILEAK	SAILA:	ZERBITZUA	ATALA
-----------	--------	-----------	-------

NEGUKO BIDEZAINZAREN ARDURADUNA

KOORDINATZAILE NAGUSIAK

TOKIKO KOORDINATZAILEAK

BIDEZAINZAKO KOMUNIKAZIOEN KOORDINATZAILEA

EKZ-REN KOMUNIKAZIO EGINKIZUNEN KOORDINATZAILEAK

GIDARIAK/MAKINISTAK



Makinistak

LAGUNTZAILEAK



MEKANIKARIAK

- Lantegiaren burua

- Mekanikariak

- Ofiziala (Ibilgailuak)
(Lanpostu hutsa)

ECTyAF Ibilgailu
Zerbitzua

* II. eranskineko langileen zerrenda bi alderditan alda daiteke, arrazoi operatiboak direla medio:

- Kategoria aldaketa
- Ordezkapena

Bide Azpiegituren Zuzendaritzak berehala jakinaraziko dizkio Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari gertatzen diren aldaketak.



III EGITEKOAK ETA EGINBEHARRAK

NEGUKO BIDEZAINZAREN ARDURADUNA (NBA)

- Zuzendaritza lanak eta programa opera tiboko erabakiak hartzea.
- Koordinaziorako Lurralde Organoaren (mahai teknikoa) bileretara joatea.
- Larrialdi aldia abiaraztea eta etetea.
- Prebentzio aldia eta izotz alertak abiaraztea eta etetea.
- Neguko bidezaintzarako behar diren taldeak aktibatzea (elurra 1.000 metrotik behera).
- Zaintza taldeetako langileen zuzeneko arduraduna da, eta neguko bidezaintzaren antolamenduaren arduradun bakarra.
